

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Etxebarriako Udala****Etxebarriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren (HAPO) hasierako onarpena.**

Etxebarriko Udaltzatzen 2020ko irailaren 24an egindako Bilkuran hartutako akordioz hasierako onospena eman zaio Hiri Antolamenduaren Plan orokorrari, Plana jendaurrean azalduko da, Euskal Herriko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 90.5 artikulua araberako. Jendaurreko erakustaldi honek bere gain hartzen du ere hirigintza-plangintzako tresna horrekin batera doan Ingurumen Ebaluazio Estrategikorako beharrezkoa den Ingurumen Azterlan Estrategikoarena, kontuan izanda batetik abenduaren 9ko 21/2013 Ingurumen Ebaluazio Legearen 21 artikulua, eta bestetik Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko 46 artikulua. Agiri horiek jendaurrean egongo dira iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita bi hilabeteko epean. Agiriak udaletxe honetako Idazkaritzan eta [www.etxebarria.biz](http://www.etxebarria.biz) webgunean egongo dira ikusgai. Edozein administrazio, erakunde, elkarte edo pertsona interesatuk aztertu ahal izango du eta egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Nahi izan ezker alegazioak aurkezteko tokia Etxebarriko Udaleko Erregistro Orokorra izango da, Peñanekua plaza, 1, 48277 Etxebarria. Era berean, Osoko Bilkura horretan, plan eta proiektuen tramitatze, eta lizentzien emakida etetea erabaki zen, 2 urteko epean, 2/2006 Legeko 85 artikulua araberako, eremu hauetan:

- AD 01-02-03-04-05, LUEko erabilerei dagokionez, partzelazioak salbu.
- AD-06 (Bizkarra Sektore zaharra).
- AI-01, LUEko erabilerei dagokionez, partzelazioak salbu.
- AI(I)-01, LUEko erabilerei dagokionez, partzelazioak salbu.
- NS-01, LUEko erabilerei dagokionez, partzelazioak salbu.
- NS-03, LUEko erabilerei dagokionez, partzelazioak salbu.

Eta orokorrean, antolaketa berriarekin bateraezin denari dagokionez.

Eta eman bekio akordio honen berri idazketa taldeari.

Eta hau argitaratzen da, Lurzorua eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90. artikulua xedatutakoa betez.

Etxebarrian, 2020ko irailaren 28an.— Alkatea, Jesús Iriondo Lejardi